





***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde guztietan kodea jartzea.***

Azterketa honek parte hauek ditu:

- Testuaren itzulpena: 0-5 puntu.
- 1. galdera: esaldi baten analisi sintaktikoa: 0-1 puntu.
- 2. galdera: hiru hitzen analisi morfoloikoa: 0-1 puntu.
- 3. galdera: lexikoa eta fonetika: 0-1 puntu.
- 4. galdera: latin-literatura: 0-1 puntu.
- 5. galdera: Erromaren ondarearen iraupena. Adierazitako obra irakurri izana frogatzea (0-0,5 puntu). Horretaz gain, gure hizkuntzetako erregistro jasoetan erabiltzen dugun latinezko esaldi bat edo esamolde juridiko bat itzultzea edo/eta haiei buruzko iruzkin labur bat egitea (0-0,5 puntu).

Hiztegia erabil daiteke.

***Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

Este examen consta de las siguiente partes:

- Traducción del texto, que se calificará de 0 a 5 puntos.
- Cuestión 1ª: análisis sintáctico de una frase: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 2ª: análisis morfológico de tres palabras: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 3ª: léxico y fonética: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 4ª: literatura latina: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 5ª: pervivencia del legado de Roma. Demostración de haber leído la obra señalada (de 0 a 0,5 puntos) y traducción y/o breve comentario de una locución latina usada en la lengua culta actual o de un aforismo jurídico latino vigente en la actualidad (de 0 a 0,5 puntos).

Se permitirá el uso de diccionario.



**A AUKERA**

*Erromatar armadak behin eta berriro garaitu ditu galiarrak. Orduan, Vertzingetorix buruzagi galiarrak estrategia aldatzea erabakitzen du: aurrez aurreko batailak saihestea eta galiarren hiriei su ematea, erromatarrek hornigairik gabe uzteko. Hala galiarrek nola erromatarrek Avariko hiriaren inguruan jartzen dituzte beren kanpamentuak.*

Caesar, castris ad eam partem oppidi positis quae aditum, ut supra diximus, angustum habebat, aggerem apparare, turres constituere coepit; nam vallare loci natura prohibebat. Summa difficultate rei frumentariae affecto exercitu, nulla tamen vox est audita indigna. (Caes., Gall., VII, 17).

**Galderak**

1. Itzul ezazu testua (hiztegia erabiliz). 5 puntu.
2. Egin ezazu *Summa difficultate ... indigna* esaldiaren analisi sintaktikoa. 1 puntu.
3. Egin ezazu *positis, constituere* eta *exercitu* hitzen analisi morfoloikoa. 1 puntu.
4. Erantzun bi galdera hauetako bati bakarrik: 1 puntu.
  - a) Adierazi zein diren latinezko *plenus, -a, -um* eta *capto, -are* hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
  - b) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *parco, -ere* eta *cavea, -ae* terminoekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
5. *Prosa klasikoa: Zizeron.* 1 puntu.
6. Erantzun a) galderari eta b) galderari.
  - a) Zer iruditu zaizu Plautoren *Epidiko* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, frogatzeko obra irakurri duzula. 0,5 puntu.
  - b) Itzul itzazu honako latindar esaldi hauek, edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat: *Cum laude* eta *Dura lex sed lex*. 0,5 puntu.



**B AUKERA**

*Jugurtaren aurkako gerran, Metelo kontsulak hartzen du erromatar armadaren agintea Numidian. Soldaduak zutabetan antolaturik daramatza, ondo babesturik, eta Vaga hiriaren inguruetara iristen dira.*

Erat haud longe ab eo itinere, quo Metellus pergebat, oppidum Numidarum, nomine Vaga,<sup>1</sup> forum rerum venalium maxume celebratum, ubi et incolere et mercari consueverant Italici generis multi mortales. Huc consul praesidium imposuit. Praeterea imperavit frumentum comportare. (Sall., *Iug.*, 47).

**Oharrak**

- 1) *Vaga*, -ae: Vaga (Numidiako hiria).

**Galderak**

1. Itzul ezazu testua (hiztegia erabiliz). 5 puntu.
2. Egin ezazu *Erat haud longe ... Vaga* esaldiaren analisi sintaktikoa. 1 puntu.
3. Egin ezazu *venalium*, *incolere* eta *consueverant* hitzen analisi morfologikoa. 1 puntu.
4. Erantzun bi galdera hauetako bati bakarrik: 1 puntu.
  - a) Adierazi zein diren latinezko *littera*, -ae eta *somnium*, -ii hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
  - b) Adierazi euskarazko zer hitz ezagutzen dituzun latinezko *verbum*, -i eta *missus*, -a, -um hitzekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
5. *Poesia lirikoa* (Katulo, Horazio, Ovidio). 1 puntu.
6. Erantzun a) galderari eta b) galderari.
  - a) Zer iruditu zaizu Plautoren *Epidiko* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, frogatzeko obra irakurri duzula. 0,5 puntu.
  - b) Itzul itzazu honako latindar esaldi hauek, edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat: *Do ut des* eta *Cui prodest*? 0,5 puntu.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### LATINA II

- 1) Latinezko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzea, hiztegia erabiliz.
  - Gehienez, 5 puntu.
  - Hauek balioetsiko dira: latinezko testuaren edukia ulertzea, kontzeptuak xede-hizkuntzara itzultzeko gaitasuna eta itzulpenak erakusten duen latin gramatikaren ezagutza.
- 2) Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoa.
  - Gehienez, puntu 1.
  - Analizatu behar dira bai esaldi osoaren egitura nagusia bai esaldi horretako elementu bakoitzaren funtzioa.
- 3) Adierazitako hitzen analisi morfologikoa.
  - Gehienez, puntu 1.
  - Kasuaren arabera, izen-jokoaren (generoa, numeroa eta kasua) edo aditz-jokoaren (pertsona, numeroa, denbora, modua eta boza) bereizgarriak zehaztu behar dira, betiere kontuan izanda galdera hitzak testuinguru horretan duen balioari dagokiola (adib.: zer da «hoc» aurrean dugun testuan, eta ez zer izan daitekeen «hoc» testuinguru kontuan hartu gabe).
- 4) Lexikoari eta fonetikari buruzko galdera. Latin lexikoak gaztelanian edo euskaran izan duen eragina.
  - Gehienez, puntu 1.
  - Hauek balioetsiko dira: kultismoen eta ondare hitzen artean bereiztea, aipatutako hitzen kopurua eta hitz bakoitzari dagozkion lege fonetikoaren azalpena.
- 5) Latindar literaturaren historiari buruzko galdera.
  - Gehienez, puntu 1.
  - Galderan aipatzen den literatura generoa definitu behar du ikasleak, eta genero horren barruan sartzen diren egileei buruz dakiena azaldu (batez ere literatura genero horri dagozkion obrei buruz jardunez).
- 6) a) Itzulitako obra latindar baten irakurketa.
  - Gehienez, 0,50 puntu.
  - Galderaren helburu bakarra da jakitea ikasleak eskatu zaion obra irakurri ote duen; horretarako behar adina datu eta xehetasun eman behar ditu ikasleak.b) Egungo hizkuntza jasoan erabiltzen diren latinezko lokuzioak eta latin juridikoaren alorreko esaldien eta esaeren zerrenda.
  - Gehienez, 0,50 puntu.
  - Esaldien itzulpena edota iruzkin labur bat eskatzen da.

**OHARRA:** Zenbait latin-hiztegitan, gramatikari buruzko eranskina dator (deklinabideen taulak, aditzen taulak...) eta ezinbestekoa da epaimahai guztietan irizpide bera izatea horien erabileraz: hiztegiarekin batera erabili ahal izango dira.